


**UKALDI (001)**  
**Dantza erresistentzia-**  
**eta askapen-ekintza gisa**  
**A1. Hil arte dantzatu**  
**B1. Esnatu**  
**MUGIMENDUA, HARRIAK2023**

Johnno eta Spanner zuri-beltzeko besarkada batean urtu dira. Jendez inguratuta daude, baina une honetan biak bakarrik daude. Euforiak zerurantz altxatu ditu, Glasgow kanpoaldean abandonatutako eraikinaren hormetan durundi egiten duen acid house-aren erritmora dantzan ari den jendetzaren gaintik, mila eta bat oztopo gainditu ondoren sortutako Aldi Baterako Eremu Autonomo horretan<sup>1</sup>. Bi iheslari aske sentitzen dira, azkenean. Garaipena bi lagunaren artean betiereko besarkada eta musuarekin ospatzen da, adiskidetasun zintzoaren gorespenarekin. N-Joi taldearen Anthem entzuten da:  
*«Feel the melody that 's in the air/True love keep me hard to find/I' m in love with you/ Want you to love me too».*

Beats filmaren sekuentzia honek (Brian Welsh, 2019) bidaia beharrezkoa zela erakusten digu. Atalasea zeharkatu beharra zegoen. You got to get in to get out<sup>2</sup>, Tresor klubeko esloganak 1991ko Berlingo Love Parade-n zioen bezala.



**A1.**

**HIL ARTE DANTZATU**

1518ko uztailea da. Estrasburgon gaude, Frantzian. Frau Troffea izeneko emakume bat dantzan hasi da itxurazko arrazoirik gabe, musikaren laguntzarik gabe. Pixkanaka jende gehiago batuko zaio, hilabete baino gehiagoz dantzan arituko diren ia 400 laguneko taldea osatu arte. Parte-hartzaile asko bihotzekoak, garuneko isuriak edo neke hutsagatik hilko dira. Koreomania agerraldi honentzat azalpenik ez dagoen arren, mota honetako adierazpen kolektiboak garai latzekin erlazionatu ohi dira, gaitz arrunt batekiko erreakzio gisa.

Dantza, ekintza komunitario bezala, klase baxuen historian konstante bat da eta bere arrastoa denboraren kobazuloan galtzen da. Beste adierazpen bat akelarreak dira, Zugarramurdiko kobazuloetan edo Zallako Bolunburu bezalako zelaietan egin zirenak. Euforia kolektiboaren adierazpen horiek, dantzarekin lotura handia zutenak, ezarritako ordenarekiko erreakzioa ziren, metatze kapitalistaren eta mundu feudaleko ehun kolektiboaren suntsipenaren aro berri baten hasieran eman zirenak<sup>3</sup>. Suaren inguruko dantza hauek, non kolektiboa banakoaren gainetik zegoen, transgresio bat izan ziren eta, kasu askotan, heriotza ekarri zien dantza egiten zutenei. Aldaketa garai hartan eskatutako sakrifizioa izan ziren.

Euskal Herrian, dantza libreko herri-adierazpenetako bat erromeria izan da. Auzo edo herri bateko biztanleak herriko ermitara erromesaldian joaten ziren jai egunak ospatzera, komunitatean. Hasiera batean erritual erlijiosoa zena ekintza askatzaile bihurtzen zen, non inguruko gizon eta emakumeek dantza egin, edan eta pultsio erreprimitei bide eman ziezaieketen. Gurea bezalako gizarte sakralizatu batean, non eliz hierarkiaren kontrol soziala ia ahalguztiduna zen, ospakizun hauek urratze ekintza txiki bihurtzen ziren<sup>4</sup>.

Gure aroko XX. mendean, kontsumo-gizartea eta nerabea subjektu sozial eta politiko gisa agertu zirenean, dantza-musika garai bakoitzean sortu ziren azpikulturen ikur bereizezina izan zen. Jazza, rock & rolla, soula, disko-musika edo punka, helduen neurrira egindako mundu batean deserrotuta sentituz, errebindikatu eta inposatu zitzairen errealitatearekin hautsi nahi zuen biztanleriaren sektore baten adierazpen nagusiak izan ziren. Haietako askok musikaren erritmora egiten zuten, zolak dantza-pistan higatuz.

80ko hamarkadan technoa sortu zen Detroiten eta ezer ez zen berriro berdina izan. Musikak eta dantzak desindustrializazioaren ondoren hiria bihurtu zen basamortu post apokaliptikora jotzen zuten zuzenean. Aldi berean, makina erabiltzen zuten etorkizuneko musika sortzeko. Kluba zuk izan nahi zenuena izan zintezkeen tokia bihurtu zen, euforia modu kolektiboan eraikitzen zen tokia, musika nork egiten zuen ez zuen axola, dantzatu besterik ez zuen axola. Lan-munduak sortzen zuen alienazioaren aurkako amorru guztia ostikatzeko lekua ere bazen, berdin zuten lanean edo langabezian egon.

*«Ni astelehenetik berotzen hasten naiz. Astea igaro dadin, hori da nire pentsamendu bakarra. Aste osoan zehar energia metatuz noa, zein ondo pasatuko dudan pentsatzearekin. Orduan, dantzalekura heldu eta eneregia guztia askatzen dut.»<sup>5</sup> Yamal*

Rave en el país de las maravillas testuan, Alana Porterok paralelismo bat egiten du Aliceren istorioaren eta Rave mugimenduaren artean. Egilearen ustez, Lewis Carollen ipuineko protagonistak egiten zuen bidaia eta rave batera edo klub batera dantzatzera joaten den norbaitek egiten duena antzekoak dira: biak ala biak egotik askatzen dira eta, desagertzearen bidez, autoaurkikuntzarako bide bat egiten dute. Biak lurrazpira jaisten dira bidaia horretarako. Biak sartzen dira *«untxi-gordeleku batetik ikaskuntzaren labirintora»<sup>6</sup>.*

Inkontziente kolektiboaren dantza-pista kokatzen den beste dimentsio batera eramaten duen errituala da, non pertzepzioa iraultzeko gai izan direnak bakarrik irits daitezkeen.

<sup>1</sup> TAZ, Hakim Beyk sortutako akronimoa, kontrol soziala saihesteko sortutako espazio iragankorreireferentzia egiteko.

<sup>2</sup> Sartu behar duzu irten ahal izateko.

<sup>3</sup> Ideia hau defendatu zuen Silvia Federici-k bere Caliban eta Sorgina lanean.

<sup>4</sup> Homobono, J.I. (1989).

<sup>5</sup> Boom Boom-etik aterata, Sara Goxuaren mixtape bat, bere Soundcloud-era igota. <https://labureus/0IFnc>

<sup>6</sup> Alex Portero izenpean argitaratua Mundo Subterráneo (La Felguera, 2015) lan kolektiboan.



**B1.**

**ESNATU**

Testuaren hasieran, Johnnok eta Spannerrek euforia kolektiboaz eta egoa uzteaz gozatzen jarraitzen dute.

Baina rave-a modurik txarrenean amaitu da:

West Midlandseko polizia eraikinean sartzen da eta jaia kolpeka desegiten du. Gazte pilo batek korrika ihes egingo du. Beste batzuk atxilotu eta komisariara eramango dituzte. Estatuaren indarkeriak amaiera eman dio gure bi pertsonaien abenturari. Baina ez bakarrik haiena. Urte horretan bertan gobernu kontserbadoreak eta oposizio sozialdemokratak Criminal Justice and Public Order Act onartu zuten<sup>7</sup>. Rave ametsa urte hartan hil zen.

Rave-aren biharamunean gure bi lagun eskoziarrak ohean etzanda daude. Bata, estatuaren beso armatuak makilaz jipoituta; bestea, anaiaren mehatxuak buruan, zeinak prezioa jarri dion bere buruari. Indarkeria estrukturalaren biktima bi; bata gizarteak aukeratutakoa, bestea inposatua. Bata sotilagoa, bestea gordinagoa. Sabaira isilik begiratzen duten bitartean, amaieraz jabetzen dira eta zalantzan jartzen dute gertatutakoa benetakoa izan ote den. Gauza bera gertatzen zaigu batzuetan dantzatik itzuli ondoren; ez dakigu, errepikatzearen indarraz, dantza-pista espazio askatzailetzat duen narratiba hori sinistu ote dugun. Etxera nekatuta eta hutsik itzuli ondoren, transgresio eta kolektibitate istorio horiek guztiak barneratu ditugun eraikuntza artifizialak dirudite. Azkenean, errebeldia errugabe eta hedonista besterik ez da, ideologiaz hutsa. Mehatxu bat da? Iraultza posible al da iraultzak ezinezkoak diren garai batean? Antzeko zerbait gertatzen da lehen aipatutako akelarreekin: benetan gertatu ziren ala baliozkotzat jo dugu gure diskurtsoarekin bat datorren kontakizun urratzaile bat delako?

Azken urteotan, dantza-kulturako ia genero guztiak mainstream-ean bete-betean sartu izanaren lekuko izan gara; eta hori ez da asmatutako narratiba bat, ezta onartutako mantra bat ere<sup>8</sup>. Ez da berria, ezta musika elektronikoaren fenomeno eksklusiboa ere. Gazte-azpikulturei lotutako musika-genero guztiak zeharkatu ditu sistemak; honen interes ekonomiko eta kulturalak.

Kapitalismoak dantza-kulturari lotutako soinuen egin duen berrjabetze horrek, ezinbestean, honen merkantilizazioa ekarri eta izan zezakeen indar eraldatzailearen zati handi bat galdu du. Ego, zekenkeria eta kokainaz gainezka dauden DJ eta promotoreek dantzaren kultura entretenimendu huts bihurtu dute, kontsumo azkarreko produktu bat, scrollaren beste biktima bat. Beste salgai bat gehiago. Plazera eragiten diguten beste gauza askorekin egin bezala, dopamina-subidoi bihurtu dute une batez, B aurpegian jaitsiera saihestezina duena. Leo Felipek Historia universal del after (Caja Negra, 2022) lanean idatzita utzi zuen bezala: «*Klubak ez-leku bihurtu dira, kolektibitatearena baino, bakardade-sentsazioa handia duten igarobideak*».

<sup>7</sup> Norbanakoen askatasunak eta, batez ere, kolektiboak mugatzen zituen legea. Langileriaren hainbat adierazpen kultural eta kolektiboren aurkako erasoa zen, hala nola dantza-musika edo futbola.

<sup>8</sup> Chicagoko eta Detroiteko House eta Technoren hastapenetan, ez zen luzaro itxaron behar izan bi genero horiek industriak xurgatu eta gizarteari kontsumo on gisa itzultzeko. Fenomeno hau Bigarren Mundu Gerraren ondoren sortutako ia musika genero guztiekin gertatu da.



Onura ekonomikoak eta hedonismorik indibidualistenak mundu osoko dantza-pistak konkistatu dituzte. Era berean, beste lanbide batean bihurtu dute, eszena horretan lan egiten eta mugitzen diren pertsona asko prekarizatu; bai dantzalekua musikaz betetzen dutenak, bai gure gehiegikerien hondarrak garbitzen dituztenak ere.

Itzulerarik gabeko puntu batean bizitzearen sentsazio hori da elkartu, hitz egin eta ideiak proposatzera garamatzana; mugimenduan jartzera garamatzana, egoera iraultzeko ez bada ere, bizi dugun egoeran pitzadurak bilatzeko, errealitate atseginago eta kolektiboago bat sortzeko, non euforia komunitarioa ez den ordu gutxi batzuetako subidoia izango, baizik eta denboran iraungo duen eta aurrera eginaraziko digun indar bat. Badakigu errealitatea ez dela aldaezina, badakigu alternatiba bat badagoela. Mark Fisherrek Komunismo Azidoa deitu zuena eraikitzeke ordua da<sup>9</sup>. Dantza-pistan alienazioarekin amaitzeko ordua da, hau berriz ere harremanak izateko modu berrietarako laborategia izan dadin. Hedabideen kontrola berreskuratzeko ordua da, euforia kolektiboaz gozatzekoa, guztiok zeharkatzen gaituzten gaitzak exorzizatzen eta mundu zaharraren hondakinen gainean dantza egiten dugun bitartean zerbait berria eraikitzen. Guk nahi duguna eraikitzeke ordua da. Izan ere,

*noiz gozatu  
zenuen  
azkeneko euforia  
kolektiboaz?*

<sup>9</sup> Filosofo ingelesa hil ondoren, Plan C kolektiboak hartu zuen haren lekukoa. <https://archive.transmediale.de/content/building-acid-communism>





“Ukaldi 001” 2023ko ekainaren 16an Zallan egindako  
“Mugimendua” ekitaldiaren barruan egindako argitalpena da,  
HARRIAK programaren barruan.

HARRIAK


eremuak

enkartur

Zalla

0

UKALDI



0

1